

Ezkerra bidegurutzean

• EUGENIO DEL RIO •

[IDAZLEA ETA POLITIKARIA]

Ezkerra eta eskuina *konfigurazio* bat beraren bi zati dira, Norbert Eliasek kontzeptu hori erabili zuen zentzuan. Bi elementuetako batek jarduten duenean, besteak erreakzionatu behar izaten du.

Eskuinak gehiegikeria antisozial ugari egin zituen neoliberalismoa goien-goienean zegoenean —haren adierazpiderik gorena Margaret Thatcherren gobernu britainiarra izan zen—, eta, horren ondorioz, ezkereranzko mugimendu pendular bat gertatu da Europako mendebaldeko ia herri guztietan.

Guztiz ere, esan behar da herritarren zati batek ezkererantz egindako mugimendu hori nagusiki babestekoa dela, oso indar gutxikoa, eta guztiz moderatua bere eskakizunetan.

Horregatik, ezkerreko erreakzio horren ondorioz gobernuak erabilitako politikak munta gutxikoak izan dira, berrogeita hamarreko urteetan gobernuetan izandako ezkerreko alderdiek gauzatutakoekin alderatuz gero. Frantziar soilik doa zertxobait urrunago gobernuko ezkereraren politika; izan ere, herri horretan argiagoa da ezkereraren eta eskuinaren arteko bereizketa, eskuina oso zatituta dago, eta ez du batere argi nondik jo. Erresuma Batuan eta Alemanian, hirugarren bidea delakoaren garaipenak agerian utzi du jadanik hirurogeita hamarreko urteen erdialdetik ikus zitekeen zerbait: ezkerreko alderdien politikak alternatiba eskasa zirela ekonomia neoliberalaren gorakadari eta mundumailako bihurtzeari erantzuteko.

Ezkereranzko mugimendu horren mugak ondo uler daitezke gogoan hartzen badugu ezkerrek, ez ezker politikakoak bakarrik (ezkerreko alderdiek), bai eta sozialak ere (ezkerrekoak direla dioten pertsona guztiek), hirurogeita hamarreko urteetatik jarraitutako prozesua.

Izan ere, ezker-eskuin sistema, Europako mendebaldean azken mendean izandako bereizketa eta identifikazio faktorerik ahaltsuena bera, noiz indartsuago noiz ahulago agertu da. Duela bi hamarralditik edo lehenagotik hona, nolabaiteko gainbehera bat gertatzen ari da.

Nire iritziz, ezkereraren egungo arazok sakoneko fenomeno bat dira, inola ere ez iragankorra. Krisi bat baino zerbait gehiago da. Horregatik, alferrikoak dira ezkerre berriz sortzeko egiten diren deiak, baldin eta ez badituzte kontuan hartzen egungo egoeraren sustraian dauden faktoreak:

Faktore nagusiak hauek dira:

1) Ezkerreko gizartearen edo ezker sozialaren zatiketa nabarmena. Zatiketa horrek faktore askotarikoekin du zerikusia: egoera sozio-laboralak gaur egun oso desberdinak dira (langile batzuk langabezian daude, besteek lana dute; kontratuak mugagabeak edo behin-behinekoak dira; ekonomia formalarekin batera ezkutukoa dago), eta, ondorioz, lehen langileen artean lanaren inguruan zegoen batasuna ahuldu egin da; bestalde, zatiketa espaziala dago, zeina oso nabarmena baita bereziki hirigune handietan; horrekin batera zonifikazioak joerak daude, hau da, lanari, kontsumoari, hezkuntzari, aisialdiari, etxebizitzari eta beste hainbat funtzio-ri zeini bere gunea egokitzea, baina horren ondorioz langile bizitzaren alderdi guztien sakabanatze espaziala gertatzen da —lehen geografikoki bilduago zeuden—.

2) Ahultze ideologiko sakona: bereziki motibaziorik handiena zuten sektore militanteetan izan du eragina. Europako ekialdeko erregimenen gainbeherak indarra kendu dio sektore horiek alternatiba izateko zuten nahiari, gizarte berriz antolatze gogoari, aldaketa hori posible zela sinesteari, baina joera hori askoz lehenagotik mamitzen ari zen.

3) Ezkerreko alderdiek beren espezializazioa sendotu dute, ahalgin guztia jarduera parlamentarioan eta munizipalean egiten duten erakundeak diren aldetik. Ez dute indarririk gizarte eta kultur eragile gisa jarduteko; hain zuzen ere, hori izan zen XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen zati handi batean bete zituzten zereginetako bat. Militante *sozialen* kopurua oso txikia da, eta indar gutxi dute kargu publikoen aurrean; gainera, ezkerreko alderdietako *kide izateko sentimendua* eta *alderdiko kulturak* ahulak dira beste garai batzuetakoekin alderatuta.

4) Hogeiko urteetan gertatu bezala, ezkerreko alderdiak konturatu dira ez zutela proposamen politiko propiorik gobernura iristen zirenerako. Gerren arteko aldian, eta oraindik gehiago berrogeita hamarreko eta hirurogeiko urteetan, Keynes liberala izan zuten

lagungarri gobernuan zeuden ezkerreko alderdiek, haren politika ekonomikoa baliatu baitzuten, horrelakorik ez zuten eta. Orain, egoera zailagoa da. Gaur egun, errejeta neoliberalak ongi-

zate-estatutik jasotako prozedura batzuekin nahasten dituzte hainbat modutan, baina ez oso era egokian beti.

Ez da beharrezko azpimarratzea gertaeraren garrantzia; aipatu besterik ez naiz egiten ari. Etorkizunean ez da ikusten zerk eragin lezakeen egungo joera aldatzea. Aitzitik, egungo ildotik denbora luzea eman beharko dugula aurreikusten dut, eta ezkerrek ez duela berreskuratuko galdu duena; hala ere,

iraun egingo du, motel bada ere, desberdintze ideologiko, identifikazio eta irudipenezko sistema gisa.

Nolanahi ere, amaitzeko, Europako mendebaldean ezkerrek aurre egin behar dien hainbat gai aipatuko ditut. Nolako erantzuna ematen dien, halako aukerak izango ditu etorkizun hurbilean. Hona hemen horietako batzuk:

Lana lehen batasun faktorea zen, baina orain zatiketa elementu bihurtu da, eta, aldi berean, haren gizarteratze ahalmena murriztu egin da. Ezker sozialak (proposamenen, mobilizazioaren eta auto-aldaketa kulturalaren bidez) eta gobernuetako ezkerrek (politika zehatzen bidez) lortuko dute hartan eragina izatea? Horren mende dago egungo zatiketa areagotzea edo neurri batean zuzentzea.

Zer-nolako presentzia izan behar du ekimen publikoak arlo sozio-ekonomikoan dinamika finantzario eta ekonomikoei aurre egiteko, estatuei nagusitzen ari omen zaizkie-eta? Zer-nolako aukera dago gizarte-politika publikoak eta eztauz kanpoko gizarte ekintzak bateratzeko, egungo gizarte arazoei heltzearren?

Zer-nolako aldaketak egin behar dira mendebaldeko erregimen politikoetan? Izan ere, beren zibilizazioari begira gozo-gozo bizi dira, baina hori ez dator bat beren akats antidemokratikoekin eta arkaismoarekin.

Ezkerra gauza izango da identitate nazionalei buruz kontzeptu berri bat bultzatzeko eta, horrela, etnia askotako errealtateak egokiro bideratzeko, geroago eta gehiago sendotzen ari baitira?

Posible da ezkerre orain arte baino zerbait gehiago bereiztea nazioarteko politika insolidarioetatik?

Besteak beste, puntu horiek argitu-ko digute ezkerrek hurrengo urteetan zer-nolako aukerak izango dituen.



Ezkerra gauza izango da identitate nazionalei buruz kontzeptu berri bat bultzatzeko eta etnia askotako errealtateak egokiro bideratzeko?



Ezkereraren egungo arazok sakoneko fenomeno bat dira, inola ere ez iragankorra. Krisi bat baino zerbait gehiago da

hirusta...



KIRMEN URIBE

Mugak

Mugarantz egin dugu. Eta iparralderantz. Gelsaltza eta Gaubea zeharkatu eta iparralderantz beti. Bidegurutzean eskumara hartu. Berehala jabetzen da bidatzia Araba utzi eta Burgoen sartu dela, hala eragiten baitu errepide zaindu gabeak. Erreka alboan hartu eta Valpuestaraino heltzen da bidea. Komentuak hartzen du lehendabizi bidatzia arreta eta gero etxeen utziak, leihoen bizitza ezak.

Autotik jaitsi bezain laster etorri zaigu Manuel. Gizon txikia da, begi-urdira. Giltza handi bat dakar eskuan eta hari eragiten dio berba egiten duen bitartean. Hari esker jakin dugu garai batean handia izan zela herria, hari esker gotzaindegia ere izan zuela. Aste-burua igarotzeko etxea eskaini digu jarraian. Guk ezetz, laster bueltatu behar dugula.

Manuel utzi eta errepidean behera egin dugu ibilaldia. Herrira bueltan, osterara ere hurbildu zaigu gizona. Etxeak salgai ere badaudela esan digu, bere arduran daudela eta nahi izanez gero bat edo beste gustura erakutsiko digula. Harritu egin gara lehendabizi. Langabe dagoela erantzun dio lagunak eta ezin dela oraingoz ur handietan sartu. Manuelek bera ere langabetua dela esan du. Berrogeita zortzi urte beteak izan arren, adin horretakoak hartzeko lantegiei laguntzak eman arren, ez duela oraindik lanik lortu. Izan zuen azkena, aldi baterako lan enpresa batean.

Isilik, elizari begira gertatu gara une batez. «Ez dute konponduko», atera zaio, «ez omen dago dirurik eta bere kabuz eroriko da gutxi barru. Arabarrak bagina gutxienez...»

Autotik egin diogu azkenik agur Manueli. Gotzaindegia izaniko etxe zaharretan atarian egon da trasteak gobernatzen. Eskuarekin egin digu diosal, bere begi urdinak geuretan iltzatuz.